

# Lizarraldeko euskaltzaletasunari buruzko zenbait berri (1876-1936)

JESÚS PABLO CHUECA INTXUSTA

**1** 936.ko gerla hasi zenetik bi hilabetetara, Lizarrako komandante militarra zen Ricardo Sanz Iturriak oso bandu ospetsu bat karrikaratu zuen. Bertze gauzen artean honako hauek erraten zituen: «Plaza honen Komandanteak jakinarazten du: Armadarekin bere kabuz joan diren zenbait nazionalista ezik, Nafarroako Eusko Alderdi Jetzaleak, orokorki hartuz, Espainiak bizi dituen guneei jarreari eusteko. Lizarra, bere seme batzuen bidez kanpotik ekarri eta bultzaturiko separatismoak jota zegoen. Hauengatik odol asko isuri da Gipuzkoan, baita bertze lurraldeetan ere, eta ez gutxi Lizarrakoa. Horregatik jakinarazten dugu: 48 ordu barra, nazionalista guztiek ezagunari separatista duten gauza orok, hala nola, jantziak, liburuak, egunkariak Sabino Aranaren irudiak... komandantziara eraman behar dituztela. Era berean, bertaratuko dituzte amaitu den euskal eskolako liburu zein mota guztietako gauzak»<sup>1</sup>.

Ildo honetatik jarraituz txistua Lizarran landare exotikoa zela erraten zuen. «Gora Euskadi»ren oihuak bukatuak zirela, «Viva España»ren garaiak ailegatuak zirelako. Bide batez, espainola den «Adios»en ordeztu separatistek ekarritako «Agur» hitza debekaturik gelditzen zela, zion.

Dei honek, gaur egun, nolabaiteko irrifarra sortzen digun arren, ez zuen horrelako ondoriorik sortuko, noski, garai hartako nazionalisten artean, izugarritzko ikara baizik. Dei hau eta mota guztietako eskuindarrek egindako sarraski eta jazarkunde basati oro zirela eta, arras zaila dugu, gaur egun, garai hartako gorabehera eta gertaerak suertatu ziren bezala, historia aldetik, berregitea. Izan ere, urte hauetako historia izkiriartzeko, egun haietako gertaera, pasadizo eta giroaz jabetzeko, erabat beharrezkoa genituzke Lizarrako San Juango Plazan, Iruñako Zapatería karrikan, Elizondoko mastolaren aurrean eta bertze hainbertze lekutan eginaako sutetan erre zituzten dokumentu, liburu, barneko txostenak eta abar berreskuratzea. Era berean, batzokietatik eta erakunde abertzale guztietatik lapurtutako barne agiri eta mota guztietako textuak aurkitzea eta berreskuratzea.

Honeraino errandakoa ez da aitzaki bat, benetako historia egiteko ezinbertzekoa bait dugu dokumentu guzti hauen eskurapena. Zailtasun honi bertze oztopu subjektibo bat gehitu behar diogu. Politikak eraginda historian hain hedaturik dauden topiko batzuen zama, hain zuzen ere. Hauen artean eta euskal nazionalismoari dagokionez indar politiko honen Nafarroan izandako ustezko ahulkeria eta «arrotzkeria» izanen lirarteke. Ez dakigu arrazoi honengatik izanen denentz baina errealitate historiografikoa oso pobrea izateak ez luke suposatuta behar iragan historikoa hórrela izan zenik. Ezta guttiago ere, eta hau da, hurrengo orrialdeetan, Lizarraldea mailan, azaldu nahi izan duguna.

1. Ikus: Altaffaylla Kultur Taldea; Navarra de la esperanza al terror. Iruña, Tafalla, 1986.

Bigarren gerrate karlista bukatu bezain laister Madrugo Gobernuak Foruen aurkako erasoaldia burutu zuen. 1876.ko uztailearen 21.ko legearen bitartez Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foru eta eskubideak bertan behera gelditu ziren. Hortik aurrera Espainiako armadara joan beharraz gain, lurralde «exenta» hauek, Estatúan ordaintzen ziren zergak eta bertze eginbehar guztiak Euskal Herrian ere bete behar zituzten. Nafarroak, dakigunez, 1841.ean izan zuen bere berezko legea, «Lege Hitzartua» hain zuzen ere. Lege eta egoera hauek abiapuntutzat har ditzakegu, ordutik aitzinat, foruzaleen saioak, elkarte eta ekintzak ugalduko bait dirá<sup>2</sup>. Madrilen bertan ere, euskal diputatuak foruzko deuseztapen honen aurka burrukatzen saiatzen direlarik. Abagadune honen inguruan plazaratu zen «LA PAZ» aldizkariaren bidez, Mateo Benigno de Moraza, Fidel Sagarmínaga, baita Arturo Kanpionek ere, foru eta aintzinako eskubideen alde artikulatu ugari eta gartsuak izkiriatu zituzten<sup>3</sup>. Aldi batez, Euskal Herrian lehenbiziko talde foruzale eta euskaltzaleak gauzatzen zihoazen. Bizkaian, «Sociedad Euskalherria» delakoa eta Nafarroan «Asociación Euskara de Navarra» izenekoa. Mugaz bertzalde Antoine D'Abaddie euskaltzaleak bultzatu zituen ekintzak Euskal Herri osoan barrena antolatzeari ekin zioten elkarte hauek. Nafarrak esate baterako 1879 ean Elizondon prestatu zituen muga honuntzako lehen lorejokuak eta honez geroztik antzeko ekitaldiak atondu zituen Bidasoako Beran, Iruñean, Hondarrabian ...

Elkarte honetan Lizarrako seme bat dugu, Estanislao Arantzadi Izkue alegia. Hiri honetan 1841.ko maiatzaren sortua. Zuzenbideko ikasketak burutu ondoren Bartzelona eta Oñatiko Unibertsitateetan aritu zen irakasle gisa. Azken unibertsitate honetan zegoenean bigarren gerla karlista hasi zen eta hau zela medio garai hartako euskal unibertsitate bakarrak bere ikasgelak itxi behar izan zituen. Estanislao Arantzadi berriro Lizarran laketu zen karlismoaren gorabehera eta mugimendu taktiko guztiak leku oso gertu batetik ikusteko aukera izanik<sup>5</sup>.

1876.ko hondamenak azken indar politiko honen bukaera ekarri ez ba zuen ere, bertze ikuspuntu eta eragin politiko zein kulturalak sortarazi zituen Euskal Herri osoan. Nafarroari so eginez gero, arras nabarmena dugu Estanislao Arantzadik eta bertze hainbertze euskaltzalek bultzaturiko «LAU-BURU» egunkaria eta arestian aipatu dugun «Asociación Euskara de Navarra» erakunde euskaltzalea. Elkarte eta komunikabide hauek, hirugarren karlistadaren ondoko garaian, foruzaletasunaren babesleku bilakatu ziren. Arrakasta gutxiko saio politiko batzuk egin ba zituzten ere, -1882.ko hauteskundeetan esaterako, Estanislao Arantzadi bera Silvestre Goikoetxearen aurka lehiatu zen Lizarrako diputatuaren eserlekua lortzeko asmoz<sup>6</sup> bere ahalegin haundienak kultura mailan garatu zituzten, urte batzuk beranduago jaioko den euskal nazionalismoaren gainegitura ideologikoa aurreratu eta oinarrituz.

Nahiz eta erakunde eta aldizkari hauek oso bizitza motzakoak izan, bere partaideek XIX. mendeko azken hamarkadan foruzko arazoa berriro gori gorian jartzen denean, oso protagonismo handia izan zuten. Esate baterako 1893.ean Gamazada ospetsua suertatu zenean berriz E. Arantzadi agertzen zaigu nafar foruen aldeko mobilizazioetan su eta gar arituz. Behin eta berriro jendearen aurrean mintzatu ez ezik, Nazionalismoaren historian biziki ezaguna den pasadizo baten egile nagusiengandakoak ditugu Arantzaditarrak. Nafarroako Diputazioa, Madrilen egon ondoren, nafarrotatu zenean, Sabino Arana zenbait bizkaitarrekin Kastejonera joan zen nafar

2. Ikus: Javier CORCUERA ATIENZA, *Ideología y Organización del Nacionalismo Vasco*. Madrid, 1979. Antonio ELORZA, *Ideologías del Nacionalismo Vasco*. San Sebastián, 1978. A. CIAURRIZ, *La Abolición de los Fueros Vascos a través de la Prensa*. San Sebastián, 1976.

3. *Ibidem*.

4. Ikus: *Revista Euskara de Navarra (1878-183)* Imp. de Joaquín Lorda, Iruña.

5. Ikus: Arturo CAMPIÓN, «Estanislao Arantzadi. Semblanza», in *Boletín Comisión Monumentos de Navarra, Iruña*, 1934. Iñigo CAMINO, *Nacionalistas (1903-1930)*, Bilbao, 1985.

6. Ikus LAU-BURU, 12.ko urriaren 31tik urte bereko abenduaren bukaera arteko aleak.

diputatuak agurtzera. Aranak zeraman pankarta «Bizkaitarrek naparrak agurtzen deutse. Jaungoikoa eta Legizarrak» zioena, Estanislao Arantzadiren emaztea zen Juana Irujok egina zen <sup>7</sup>.

Ez ziren hemen amaitu euskal nazionalismoaren sortzailearekin Arantzadi eta Irujotarrek izandako harremanak, alderantziz, hurrengo urteetan areagotuz joan ziren. Izan ere, joan den gizaldiko ondar urteetan korronte honen lehenengo erakunde (Euskaldun Batzokija) eta aldizkariak garatzen ziren heinean zenbait arazo eta epaiketa Espainiako Justiziarekin sortu zirenez, -1895.ean «BIZKAITARRA»n agertu ziren «Vengan Escobas» eta «Abolición y Reconquista» izenburu zeukaten artikuluetatik Sabino Arana epaitu zuten-Daniel Irujo Urria defendatzaile lanetan dauka. Lizarratar hau, Juana Irujoren anaia izanik, Arantzadiren ezkonanaia zen eta urte batzuetan aurrerago nazionalista sutsuak izango diren Irujotar anaiei aita. Daniel Irujok, Sabino Aranarekin batera bere ertaineko ikasketak egin zituen Orduñako ikastetxean. Geroxeago, Valladoliden zuzenbide ikasketak amaituta, Deustoko unibertsitatara zuzenbide prozesala irakastera joan zen, Bilbon bertan bere abokatu bulegoa paratuz. Jatorriz kartista, bere aita Tafallako alkatea izanik, hiri honetatik lehen karlistadan alde egin behar izan zuen alderdi honen partaide zelako <sup>8</sup>.

Daniel Irujok, Aranaren kontra burututako epaiketetetan, egindako defentsen bitartez aise antzeman daiteke Lizarrako seme honek Euskal Herriarekiko zituen grina eta sentimenduak. Buruzagi bizkaitarrarekin bat eginik euskal lurraldetako eskubide sakonak defendituko ditu nazionalismoak zituen oinarri ideologikoak aldarrikatuz. Esate baterako, fiskalak «Lurralde baskongadoa zuzenki Nazio espainolaren obedienciaz lapurtzea, aldentzea nahi dute» egindako salaketaren aurrean Daniel Irujok honako erantzuna eman zion: «Nork lapurtzen du, noren alde lapurtzen du? Auzian dagoena ez da herri hau inoren mesedez hartzea, bera bere buruaren jabea izatea baizik. Eskatzen dena ez da, Euskal Herria Frantzia edo Portugalaren menpe izatera pasa dadila, Euskal Herriaren Independentzia baizik. Euskadik independente bizi izateko eskubide osoa du. Munduan dauden herrietarik zeinek adierazi ditzake Euskal Herriak Independentziarako dituen bertzeko hainbertzeko eskubide. Ireki itzazue historiaren orrialdeak eta hautatik Euskal Herriaren Independentzia aterako duzue. Historian zehar euskaldunak bere askatasun eta independentziaren alde borrokatu du. Nafarroak, konkistaturik izan arren, libre, independente eta bereiztuta jarraitu zuen. Nafarroa eta berteko lurralde euskaldunak pertsona bakar baten bidez loturik zeuden, erregearen bitartez, alegia, eta beren Gorte, Biltzar Nagusiak, ahalmen ekonomikoak eta legezko aginteak gorde zituzten, gure menderaino ailegatuz, non independentzia euskariana batasun nazionalaren menpean gelditu da. Ez al zaizue iruditzen berezkoa dela euskaldunek bere aitzinako askatasunak, bere independentzia, bere nazionalitate galduta berezari nahi izatea? Alderdi nazionalista? Bai. Bere nazioari dagokion guztiari atxikimendu duena nazionalista da. Nazionalista da ere, bere herria berteko herri kementsuago batek ezarritako morroitzatik askatu nahi duena. Nazionalista da berea defenditzen duena eta hau galduta izatekotan berreskuratzen aritzen den gizon ondratua.

Bere Independentzia hil duten legeak kentzen saiatzen diren euskaldunak, hauek ez dirá separatistak, nazionalistak baizik. Poloniar, irlandar edota hungariarrak bezala. Zergatik ba, ez da zilegi izango, euskaldun guztioi, nafar zein bizkaikoi, errebolta-ri izena jasan gabe, gure askatasun galdutakoen errekonkista programa izango duen alderdi bakar batean elkarturik izatea? <sup>9</sup>.

1902.ean berriro ere Sabino Arana epaitu zutenean Daniel Irujo ere bere defendatzailea izanen da. Bigarren epaiketa honetan Lizarrako abokatuarekin batera, Teodo-

7. Ikus: Javier Corcuera Atienza. lehen aipaturakoa.

8. Ikus: ASTILARRA, «Nabarra con los precursores del nacionalismo» III; Euzkadi, 3. artoa, 1981. Iñigo CAMINO, Nacionalistas (1903-1930), Bilbao, 1985.

9. Ikus: Daniel IRUJO, Inocencia de un patriota. Buenos Aires, 1913.

ro Agirre, geroxeago Euskadiko lehendakaria izango den José Antonio Agirreren aita aritu zen. Prozesu honen arrazoia, Estatu Batuek Kubari eman zioten independentziaren aitzakiak Roosveltengana bidalitako honako telegrama hau izan zen: «Roosvelt Estatu Batuetako Lehendakaria. Washington. Eusko Alderdi Jeltzaleak zorionak ematen dizkio Federazio txit leinargi horretako Lehendakariari esklabutzatik askatutako Kubaren independentzia aitortzeagatik. Estatu boteretsuok horrekin eman duzuen Justizi eta Askatasun enenplu eta jarrera ezezagunak dirá Historian, eta imitaezinak Europeako potentzientzat, latinoentzat batipat. Europak hori imitatuko balu, librea izango litzateke eusko nazioa ere, bertoko herririk zaharrena, Estatu Batuen laudorioak merezi izan zituen Konstitutzio batez zuzenduta libertatea menderik gehien gozatu duen nazioa»<sup>10</sup>.

Hauxe zen nazionarteko textuingurua, nazio batzuek bere askatasunaren lehenbiziko urratsak dastatzen zituzten bitartean, hemen jaiotzen ari zen Nazionalismo batek aldarrikatzen zuen European zanpaturik zeuden herri orok eskubide berdinak izan behar zituztela. Ideia hauek zabaltzen ziren heinean euskal abertzaletasuna pixkanaka pixkanaka indartuz zihoan. Nafarroari dagokionez, 1904. ean Bilbon, «Juventud Vasca» delakoa jaio zen bilkuran Nafarroako zenbait ordezkari agertu ziren.

Ondorengo urteetan eta batez ere, 1910.z geroztik euskal aberzaletasunak gorakada arras nabarmena izan zuen Iruñerrian. «NAPARTARRA» aldizkaria karrikaritzeaz gain, elkarte berri eta batzoki batzuk irekitzeari ekin zioten garai hartako jeltzaleek. Abertzaleen egunkaria zen «EUZKADI» oso baikor agertzen zen erranez: «Aspaldiko egunetako solasa da ta uritarr geyenak dabilkitena; abertzalien indartzea ta ugaltzea. Jeltzalen batzokiya bezalakorik ez dago Iruñan; gaiñ gaiñeko etxea ta uriyaren erdi erdian ideki dute ta unek naiko buruko miña damakiye ta makurrena deusik eziñ egiñ abertzalen kaltez. Ok gero ta sendoago ta azkarrago yoaki eben bideari; beti aintziñerat Iruña'n eta Naparra guziyan ere bai ezti ezteki... Jel ikurriña non nai ezagutzen eta zabaltzenta etsayen gezurrak agertuz yoaki ta gezurra utziz Naparr zintzoak egiakiñ besarkatuz dikuski ta au miñ gaitza izaki, eziñ iretsi bezalako... Lanak dituzte Jel etsayak, ezkerrekoak eta eskuñekoak, eziñ eramanez abertzalien aurrerapen ok... batzoki berriaren eta orrelako ederren zabaltziak, ortz irriki irrikituekin dauzki etsai oriyek eta maiz maiztxo ezpañari autsiki eta buruari azka egiñ bearrian aurkitzen diré gaxoak eta gero eta maizago aurkituko ere bai Goikoari eskerrak»<sup>11</sup>.

Hau Iruñako batzoki berriaren inaugurazioaren bezperetan idazten zuten. Hiri honetan, 1910.tik, San José Plazan kokaturik zegoen lehenbiziko batzokia utziz, Zapatería karrikan zegoen «Jauregizar» etxe dotorea nazionalistek erosi zuten, beren talde eta aktibitate guztiak hortxe bertaratzeko. Izan ere, 1914.z geroztik, 1936.ko gerla ailegatu zen bitartean elkarte abertzale ezberdin guztien egoitza izateaz gain, «NAPARTARRA» eta «LA VOZ DE NAVARRA» zein «AMAYÜR» komunikabideen inprimategia ere egonen dirá<sup>12</sup>.

Batzoki berri honen lehendakaria Manuel Aranzadi dugu. Honekin eta Manuel Irujorekin nazionalismoaren bigarren belaunaldi bat hasten déla erraiten ahal dugu. Manuel Aranzadi, Lizarran sortu zen 1882.ko martxoaren 3 an. Lanbidez abokatua. 1907.tik aitzinat Napar Buru Batzarraren partaide izanez, ezinbertzeko garrantzia hartuko du Nafarroan Alderdi Jeltzalearen egituratze ahaleginetan. Bera eta bertze izen batzuk, hala nola Fulgencio Etxaide, José Agerre... behin eta berriro agertzen dirá honako berri hau bezalakoetan: «Nazionalismoa garaile» «Euskal Nazionalismoak bidea ireki egiten du Nafarroako Erriberan. Gaur alderdia antolatzeko asmotan Iruñatik Tafalla aldera abiatu dirá Cia, Goñi eta Arantzadi jaunak. Hor zenbait gazte

10. Ibídem.

11. Ikus EUZKADI, lehen aroa. 1914.ko urtarrilaren 5ak.

12. Ikus, La Tipográfica Navarra. Acta de Fundación. Registro de Sociedades.

abertzaleekin mintzaldi bat egin dute udal batzar nazionalista bat osatzea erabakiz. Hemendik gutxira Uxue eta<sup>13</sup> Nafarroako herri karlistena den Erriberrin antzeko batzarrak - osatuko dituzte»<sup>13</sup>.

Dena den barne lan hauek nazionalismoaren garapenarako garrantzitsuak ba ziren ere ohiartzun askoz haundiagoa izan zuen 1917-1919 urteetan Katalunya eta Euskadiko, abertzaleek Madrilgo Gorteetan eta beren lurraldeetako eztabaidetan berpiztuarazi zuten arazo autonomikoak. Emaitza zehatzik lortu ez arren, Nazionalitate hauetan eta Madrilan bertan egin ziren eztabaidei esker «herrien arazoa»k izugarritzko gaurkotasuna hartu zuen. Euskal Herriari dagokionez aipatutako bi urte hauetan, bai Diputazioek, bai Udalek autonomiaren aldeko erreibindikapenak kaleratuz, 1839.ko egoerara itzultzearen beharra eskatu zuten<sup>14</sup>.

Eztabaida hauetan protagonismo handia izan zuen Manuel Arantzadik. Alde batetik 1918-1923 arteko urteetan, bera Madrilgo Gorteetan Iruñari zegokion eserleku bat eskuratuz talde nazionalistaren bozeramailea bihurtu zelako eta bertze aldetik foro honetan bereganatu zuen ospearen bitartez euskal abertzaleek antolatzen zituzten hitzaldi eta mitin guztietako ezinbertzeko hizlaria bilakatu zelako<sup>15</sup>.

Arlo honetan oso aipagarriak dirá 1918.ko apirilean Madrilgo Parlamentuan berak burututako saioak. Egun hauetan nafar parlamentariak jeltzideek zuten programa politiko osoa azaldu zuen, Euskal Herriak Espainia aldetik pairatzen zuen zapalkuntza salatuz. Apiolaren 16.ko saio ospetsuan Arantzadik bere poza adierazi zuen «zeren Espainiako Gobernuan alderdi bakar bat egon beharrean, Espainiako alderdi guztiak bait zeuden». Hau hórrela izanez, Gobernuak biziki ongi isladatzen zuen «azken 100 urtetako historia espainiarra non Euskal Herriak aurreko guztietan baino askoz gehiago jasan izan zuen». Ez ziren txikiak Arantzadik plazaratutako salaketak: «Gaur egun Agintean dagoen Gobernuak Euskal Herriaren eskubideen etengabeko ukapena, berezko eskubideen zapalkuntza, arrazazko ezaugarrien deuseztapena, eta «Iloten» legenda batean izango bagina bezala, gure milaurteko hizkuntza den Euskera, gure nazionalitate debekatuaren erlikitegi sakratuaren jazarkunde tematia ordezkatzen du. Zeren, jaunok, gaur egungo Gobernuan dauden, ia ia alderdi oro bat etorri dirá<sup>16</sup> gure hilobian jarri behar zen hilarriaren inskripzioa «Vasconia Fuit» zizeltzera»<sup>16</sup>.

Geroxeago Arantzadik jeltzaleen alderdiak zuen erreibindikapen programaren ardatz nagusiak azaldu zituen. Hasteko Euskadik nazionalitate bezala bizi izateko zituen ezaugarriak eta eskubideak garatu zituen erranez: «Gu ez gara alderdi politiko zehatz bat eta ez gatoz, gune hauetan, programak eztabaidatzera. Gu bere nortasunaren kontzientzia duten euskaldunen izenean gatoz, gu Euskal Herriaren izenean, Euskadiren izenean, gaurkook erraten dugun eran gatozkizue. Pirineotako bi aldeetan, historialariek aipatzen diguten oso aintzinako herri bat dugu. Berezko nortasuna eta erakunde eta ohitura jatorriekin eta bertze mintzairarekin loturarik edo harremanik ez duen hizkuntza batez hornituta dugun herri hau Euskal Herria da»<sup>17</sup>.

Honelako aurkezpena burutu bezain laister programa nazionalistaren hiru atal garrantzitsuenak, gizarte arazoa, erlijioso eta politikoa, jorratu zituen, ondorio gisa honako erreibindikazioak azaltzeko: «Guk gure nortasun politikoaren bilakaera Saino ez dugu nahi. Guk gure izatezko ezaugarriak gorde eta 1839.ko legeak suntsitu zituen erakundeetan gorpuzturik zeuden ahalbideak erreibindikatu nahi ditugu eta

13. Ikus EUZKADI, lehen aroa. 1913.ko irailaren 22ak.

14. Ikus: José María JIMENO JURÍO, «Reivindicaciones Autonómicas en 1917-1919», in PUNTO Y HORA ko ale ezberdinetan. 1977-1978. Víctor Manuel ARBELOA, Navarra ante los Estatutos, Iruña, 1978.

15. Ikus EUZKADI, lehen aroa. 1918.ko ekainaren 30ak; 1918.ko uztailaren 22.ak; 1919.ko abenduaren 22ak; 1920.ko apiolaren 18ak. 1920.ko Abuztuaren 15ak.

16. Ikus EUZKADI, lehen aroa. 1918.ko apiolaren 19ak eta 21ak.

17. Ibídem.

hau da, jaunok, nazionalista izan edo ez izan, gure herrian jende guztiak nahi duena. Hortxe duzue Iruñako udalaren adibidea, bere egituratzearen egunean, hain zuzen ere, 1839.ko urriaren 25.ko legearen deuseztapena eskatu duena. Guk ez dugu bertzerik eskatzen. Zuei dagokizue, zer nahi duzue jakitea: Berezko ernamuinak garatzeko eta bizitza duten nazionalitate ezberdin batzuez osatuta dagoen estatu konplexu bat ala estatu bakun, hurrupatzaile, zentralista, bizi izateko indarrrik ez duena, eta askatasuna, aurrerapena eta bizitzaren heziak sortzen uzteko bihotzabaltasunik gabekoa»<sup>18</sup>.

Idea hauek nonnahi, Alderdi jeltzaleak antolatu zituen mitin eta ekitaldietan zein ekintza publiko edota parlamentarietan, errepikatu zituen Arantzadi tar Manuelek 1918-1923 bitartean. Zentzu honetan gogoratzekoa da oso 1918.ko abenduaren 30 ean Nafarroako Diputazioan autonomiaren aldeko izandako bilkuran berak defenditutako abertzaleen jarrera<sup>18</sup>.

Urte hauetan, Iruñeako diputatu Arantzadi behin eta berriro hautatua izatea lortzeaz gain bertze urrats arrakastatsu eman zuten nafar abertzaleak, Nafar Aldundikoa alegia. Lizarraldeko botuen bitartez, hain zuzen ere, Daniel Irujoren seme zaharrena, Manuel Irujo Ollo Nafarroako Diputazioan jarri zuten. Hau, ere Lizarran 1891.ean sortua, bere baitan Arantzaditar eta Irujotar familien eraginak bilduz Errepublikak eta Gerra urtetako politikoen belaunaldia ren ikurra bilakatuko da. Bere ikasketak oraindik bukatu gabe zituenean, sartuta zegoen oso euskal kutsuko aktibitate politiko eta kulturaletan. Esate baterako, 1917.ko abenduaren lehen egunetan Gasteizen «Euskal Gaztedi Batza»ren lehen biltzar orokorra egin zutenean Manuel Irujo dugu Nazionalismoak gizarte arazoari eskeini behar zion arreta eta lehentasuna aldarrikatuz<sup>19</sup>.

Hortik gutxira, Deustuko Unibertsitatean bere Filosofia eta zuzenbideko ikasketak burutu bezain agudo, 21 urtez, Lizarraratu zen legegizona ogibideari ekiteko. Honez gain, ekintza politikoari, bere anaiekin batera eutsi zion Lizarraldeko eta Nafarroa osoko aktibitate euskaltzale anitzetan buru belarri sartuz<sup>20</sup>.

1919.z geroztik Primo de Riveraren Diktadura iritsi zen bitartean berak eskuratu-ko du Lizarraldeko diputatu eserlekua, korronte abertzalearen eragina eta indarra adieraziz. Hildo honetatik Lizarran bertan «Centro Navarro» delakoa sortu zuten zenbait abertzalek. 1917.ko abenduaren lehenean Iruñako Gobernu Zibilaren erregistroan Cruz Urria, Manuel Irujo eta Felipe Poyalek aurkeztu zituzten elkarte honen estatutuak. Hauen arabera honako hau izanen litzateke erakundearen helburua: «Euskal familia haundiaren partaideak, bereziki nafar erreinukoak, bere herria maitatzen dutenen bilgunea izatea, bazkide hauen jakite eta jolasa lortuz»<sup>21</sup>. Xede hau aurrera eramateko Cruz Urria, Victoriano Etxarri eta Felipe Poyalek batzorde bat eratu zuten, 1918.ko Fermín Deunaren egunean batzoki berria irekiz. Hortarako Iruñean egin zuten antzera elkargo inmobiliari bat «Egaechea» egituratu zuten batzokiaren egoitza erosi ahal izateko. Lizarrako erdi erdian, San Juango plazan bertan «Centro Navarro»a kokaturik, fite ekintza eta aktibitate anitzen lekua bilakatu zen. Hala eta guztiz ere, nahiz eta nazionalismoaren hazia arras sustraiturik egon, bere fruitu politikoak beranduxeago agertzen hasi ziren. Esaterako, Iruñeako abertzaleek beren lehenbiziko udal jazarlekuak lortzen zituzten bitartean -1918.ko hauteskundeetan Santiago Cunchillos, Francisco Lorda, García Larratxek zinegotzi aktak eskuratu zituzten- Lizarrako alderdikideek ez dute horrelako emaitzarik ezagutuko II. Errepublikak iritsi arte.

Izan ere, 1931.ko apirilaren 14.ko erregimen berriarekin batera Primo de Rivera-

18. *Ibidem*.

19. Ikus EUZKADI; 1919.ko abenduaren 8ak eta 9ak.

20. Ikus Eugenio IBARZABAL, Manuel Irujo. San Sebastián, 1977. Paul VIGNAUX, Manuel de Irujo Ministre de la République dans la guerre d'Espagne 1936-1939. Paris, 1986, EUZKADI, bigarren eta hirugarren aroetako ale ezberdinak.

21. Archivo Gobierno Civil de Navarra. Registro de Asociaciones.

ren diktadura zapalduta izan ziren erakunde eta alderdi orok egundoko garapena izan zuten. Euskal nazionalismoak, bere aldetik, erregimenaren aldaketa gauzatu baino hilabete batzuk lehenago, Bergaran ospatutako biltzar baten bidez bere barnean zeukan zatiketari, PNV eta Comución Nacionalistaren artekoari alegia, bukaera eman zion. Eta nahiz eta segidan bertze haustura txiki bat ezagutu, ANV alderdiarena hain zuzen ere, Euskadi osoan barrena egituratze eginbeharrari su eta gar ekin zion erakunde jeltzaleak. Lehia hau arrakastatsua suertatu zitzaion zeren Gipuzkoan eta Bizkaian lehenbiziko indar politikoa bilakatu zen bitartean bai Araban eta bai Nafarroan urte horietan zehar aurrez sekulan eduki ez zuen ezarrera erdietsi bait zuen. Azken lurralde honi dagokionez, mende honetako lehenbiziko hamarkadetako laupabost gune abertzaleak biderkatu ziren eta jadanik 1933. urtean 24 batzoki agertzen zaizkigu<sup>22</sup>. Jeltzaleen egoitzak irekitzeaz gain bertze erakunde mota batzuk hasi ziren funtzionatzen, hala nola Emakume Abertzale Batza, Euzko Gaztetxu Batza, Nafar Ikasle Batza eta abar. Lizarra, elkarte abertzale guzti hauen garapenean aitzindari kementsu bat dugu. Alde batetik, Egako hirian bertan oso ongi sustraitaturik zeudelako eta bertzaldetik, Merinaldeko herri askotara hedatze zereginetan erróla erabakiorra bete egin zuelako<sup>23</sup>.

Honez gain, 1931.ko apirilaren 12.ko hauteskundeetan, Eusko alderdi jeltzaleak Lizarrako udalan hiru zinegotzi lortu zituen, Fortunato Agirre, Máximo Urra eta Jesús Agirre, alegia. Udaleko gutxiengo bat osatu arren, hauek oso dinamika aurrerakoi eta eragin haundikoa aitzinat eraman zuten. Honen ondorioz, 1933.ko apirilaren 10 ean Segundo Mujika alkate eskuindarrak bere dimisioa aurkeztu zuenean Fortunato Agirrerentzat eskuratu zuten alkatezaren ardura.

Azken hau 1893.ean Arellano herrixkan jaioa zen. Magisteritzako ikasketak buruturik lanbide honi zenbait urtez ekin zion Aberinen eta Iruñean. 1926.ean ogibidez aldatuz Lizarrara etorri zen non 1928.ean Elvira Aristizabalekin ezkondu zen. Errepublikan ailegatu orduko bera zen Lizarrako EAJ.ko udal-batzarraren lehendakaria 1931.ko ekainaren 14.ean euskal Autonomi estatutuaren aldeko Euskadi osoko zinegotzi eta alkateek Lizarran burutu zuten biltzar ospetsua zuzendu zuelarik. 1936.ko altxamenduko lehen egunetan protagonismo nahiko ezberdin eta tristea izan zuen Fortunato Agirrek. Alkatezaz indarrez desjabeturik, atxilotua, 1936.ko Irailaren 29 ean Tajonarko hilerriko hormaren aurrean erahila izan zen, hain zuzen ere<sup>24</sup>. Berarekin batera hil nahi izan zuten, urte hauetan, Lizarraldean berpiztutako euskal nortasunaren hazia. Baina honek, jadanik, sustrai sendoak zituen. Izan ere, nazionalisten ahaleginek, arlo politikoa gaindituz bertze esparru batzuk, hala hizkuntzaren inguruko inizatibak nola folkloreak eremukoak biziki sakon landu eta jorratu zituztenez betirako utzi zituzten lizarratarren artean, ez bakarrik korrante politiko zehatz bateko adierazpen politikoa batzuk, baizik eta herri bateko nortasunaren kontzientzia. Hau frogatzeko nahikoa da urte hauetan zehar aipatu ditugun arloei begirada, gainetik bada ere, ematea.

Erregimen errepublikarra abiatu eta berehala hasi ziren Lizarraldeko abertzaleak zenbait asmo aurrera eramaten. Aipagarriena, zalantzarik gabe, Euskal katedra eta eskolakoa dugu. 1931.ko urriaren 17.an Lizarrako 125 seme hango udaletxeari instantzia bat bidali zioten euskeraren katedra bat irekitzeko bere laguntza eman zezan. Agiri hau sustengatzeko erabili zituzten argudioen artean honako hauek ziren: «Gure familien abizenak, landa, erreka eta herrien izenak, lurraldean dagoen toponimia orok nafarren mintzairaz hitz egiten digute. Hiri honi dagokion lurratik atera

22. Valentín ARTETA, «Aproximación al Nacionalismo Vasco en Navarra a través del archivo del Gobierno Civil de Navarra» in Príncipe de Viana, 1986.1 Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX.

23. Ibídem.

24. Ikus: Andrés DE LIZARRA, Andrés de Irujoren izengoitia, Los Vascos y la República española. Buenos Aires, 1944.

gabe, Lizara, Ordoiz, Oncineda, Iturrieta, Merkatondoa, Galdarrain, Zaldu, Ibarra, Belastegi... eta Urederra, hitz guztiek euskera hitz egiten digute. Eta dugun udalaren zinegotzien abizenek, hauek ere, Mujika, Egileta, Agirre, Otxoa, Lukin, Ugarte... haien euskal izaeraren oinarriak errepikatzen dizkigute»<sup>25</sup>.

Ondorio gisa, jadanik bertze herrietan -Irun, Donostia, Bergara, Iruñean- martxan zegoen inizatiba euskal katedrarena alegia, Egako hirian bertan praktikan paratu nahian udalari 500 pezetatako laguntza eta ikasgela bat eskatu zioten instantzia sinatzen zutenak.

Zenbait egun beranduago, 1931.ko azaroaren 20.ean «Sindicato de Iniciativas y Turismo» deitutako elkarteak Nafarroako Aldundiari agiri bat bidali zion «Junta de Patronato de la Lengua Vasca» osatu nahi zutela erranez. Elkargo honetan, Diputazioak, Lizarrako udala, «Euskeraren Adiskideak», eta «Sindikato» horrekin batera bortz partaide izendatzen parte hartuko luke. Idatziaren arabera «Erakunde hau bertze herriendako aitzindari izanen litzateke, bertze herri nafarrek, ihardupidea imitatuz, beraiei zegozkien lurraldeetan luza zezaketelako gure hizkuntzarekiko arretak suposatzen duen kulturaren eragin onuragarria»<sup>26</sup>. Patronato hau gauzatu zenean, «LA VOZ DE NAVARRA» egunkariak erakundearen zuzendaritza jakinerazi zuen: Udala ordezkatzuz eta patronatoaren burua Fortunato Agirre, Eusko Ikaskuntzaren izenean José María Lakarra, «Euskeraren Adiskideak» elkartearen aldetik Delfín Irujo eta diruzaina eta idazkariaren lekuetan Alfonso Urgarte eta José Joaquín de Navascues.

Finantzamendu iturri eta liburuak erdietsi bezain fite 1932.ko martxoaren 10 ean zinegotzi arduraduna zen F. Agirrek Azpeitiako iosulaguna Uranga tar Ioseba irakaslea, udaletxeko areto batetan, ikasleei aurkeztuz klaseak hasi ziren. Ikasleek ikastaldiaren truke 5 pta. ordaindu behar zuten kurtsoaren bukaeran matrikula itzuli egin zitzairen. Sindikatoak ikasturtearen arnairan burututako txostenari esker, bertze zenbait ezaugarrietaz jabetzen ahal gera. Hasiera 40 ikasle ba ziren ere, laister kopurua 100eraino igo zen. Ikasleak bi taldetan banaturik gelditu ziren. Gazteenak hamalau urtetik behera eta helduak hamalautik gorantz. Euskeraren irakaspideari zegokionez, aipatu duguntxostenak, helburuak eta edukinak helduen eta haurren artean mailakatzeko zituen. Gazteenetan nahiz eta ikastaldea sobera haundia eta aldakorra izan euskeraz irakurtzen eta idazten jakiteaz gain, «Izan» aditzaren forma arruntenak zerabiltzaten. Dena den, baikorrak agertzen ziren Lizarrako euskaltzaleak zeren beraientzat umeen klasearen emaitza garrantzitsuena ez zegoen edukinetan bakarrik kokatua, baizik eta euskerarekiko begirunean ere bai. Hau norrela izanez gero, pozik azaltzen ziren ikasturtean barrena euskeraren alde piztuak izan ziren gogo eta nahiak «egun batean ere jeitsi ez zirelako»<sup>27</sup>.

Helduen klaseari zegokionez, ikasle zenbakia txikiagoa izan zen, 48koa hain zuzen ere. Klaseak hasi zirenean luzaidetar idazle zen E. Zubiri «Manezaundi»k Lizarrako euskaltzaleak txalotzen zituen: «Gerthakari dohatsua eskualdunen eta Eskualherriarentzat Lizarran erabaki duten yaunek Eskualtzale Batasun bat eraikitzea beren arbasoen mintzai ederra ikhasteko, altchatzeko eta hedatzeko eskualde hartan». Idatzi berean nafar euskalkia ikas zitzaten gomendatzen zien erranez: «Bainan ni ausartzen niz erraiterat eskualtzale suhar horiek ikas dezaten Naparroako mintzoa. Ez beste eskualdeko batetakoa, anitz ikasle berriek egiten dutena»<sup>28</sup>. Manezaundiren aholkuen aurka Lizarrako eskolan azalpen eta ariketetan ihardutzeko Arrigaray-Ataunek gipuzkeraz egindako gramatika oinarritzat hartu izan zuten. Liburu honetan 47 ikasgaietan zehar gramatikako arau guztiak aztertzen ziren eta

25. Ikus LA VOZ DE NAVARRA, 1931.ko urriaren 31 ak.

26. Ibidem.

27. Eusko Ikaskuntzari bidalitako txostena. E.I.ko Artxiboan, Euskeraren sailan.

28. Ibidem.



itzulgaiak eta irakurgaien bidez gipuzkoar idazleen bilduma (Iraizoz, Kardaberaz, Arrese...) azaltzen zen<sup>29</sup>.

Lehen aipatu dugun txostenak zioenez helduen adinagatik seriotasun gehiagorekin eramana izan zen talde honen klasea eta honen ondorioz lortutako emaitzak garrantzi haundiagokoak izan ziren. Dena den euskal katedrarekin bi urte aritu ondoren, Lizarrakoek bertze pauso bat eman zuten. Umeendako euskal eskola paratzea, hain zuzen ere. «Patronato de la Lengua Vasca»ko idazkariak Eusko Ikaskuntzari bidali zion idatzi batean zioenez leku erdaldunetan euskera berpizteko haurtxaroarekin hasia bidezkoa eta nahitanaiezkoa zen. Izan ere, «Euskeraren Adiskideak» erakundearen bitartez Leitzako Azpiroz tar Petra andereñoarekin harremanetan jarritz, Lizarratarrek 1933.ko urrian San Juango Plazako etxebizitza txiki batean euskal eskolari hasiera eman zioten.

Petra Azpiroz'ek 17 urte eta karrera bukatu berria zuen arren lanari gogo handiarekin ekinziora eta hasieran gaizki ikusita zegoen ikastolak pixkanaka pixkanaka entzute on lortu zuen. Lehenbiziko ikasturtean 30 ikasle, neska eta mutikoak, ba ziren ere, gerratearekin batera ikastola itxi zutenean ikasle multzoa 42ra ailegatzen zen. Denak talde batean zeuden bilduak, neskatoak zein mutikoak, adina guztietakoak.

Liburuei begiratu, Eusko Ikaskuntzak hornitzen zituztenak erabiltzen zituzten. Baina Petra Azpiroz'ek aipatu zigunez ba ziren haur oso txikiak, irakurtzen ez ez zekitenak, eta nahiz eta gauza zaila izan abesti eta jokuen bidez euskeraz elkarren artean hitz egin zezaten lortu zuen. «Hitz egiten nun euskeraz, abestiak erakusten eta umetxoak oso jarriak ziren, pozik zeuden eta gauzak esateko haiak euskeraz egiten zidaten» utziko didazu pix egitera joaten» «kalera joanen naiz» eta holako gauzak<sup>30</sup>.

Ikastola, Lizarrako plazan kokaturik zegoenez gero hortxe bertan zeukan bere jolaslekua. Andereñoak oroitarazten digu: «Jende guzia harritzen zen baina ez zuen oso kontra egiten jendek ez, bestela ba ziren oso «zipitek», jende gaizto xamarra eta batzutan umeak etortzen ziren niregana esanez «Andereño esan digute guk maketoak desprezitzen ditugula» eta horrelako lelokeriak, baina herriak gehienbat onartzen zuen ikastola». Ikastolara joaten ziren gehienak, salbuespen batzuk kenduz, abertzale aldekoak ziren. «PNVk bultzatu zuen ikastola. Orduan ez zen besterik. Han lan gehiena egin zuena Irujo zen, Agirre baita ere, Nabaskues...»<sup>31</sup>.

Ikastola ikasturtez ikasturte haundituz zihoan baina 1936.ko oporrak hasi berriak zeudenean, Uztaileko altxamendu zela eta, dena pikutara, sutara hobe esanda, joan zen. Euskal kulturaren seinale guztiak ezabatu nahian erreketete eta falangistek piztu zituzten sute eta egundoko gorrotoetan itoerazi ziren urte hauetako euskaltzaileen amets eta errealitateak.

Lizarraldeko abertzaleek landu zuten bertze eremu bat Folklorea izan zen. Hasierra batetan, bertze lurraldeetako dantzak ikasteari ekin ba zioten ere geroxeago bere merinaldeko doinu eta dantzak berreskuratu eta landu zituzten zituzten gehienbat. 1932.ko Gabonetan Emakume Abertzale Batzak antolatutako festa Lizarrako ezpatadantzariak bere aurkezen saioa egin zuten. Baina beranduxeago, talde abertzale batek eraginez Larrain dantzaren aldeko batzorde bat osatu zen. Bere partaideak, Elizaga anaien zuzendaritzapean, desagertzear zegoen aintzinako dantza hau berreskuratu zuten. Bertzeak bertze Peio Irujo, F. Beruete, J. Ugarte, Elizagatarrak, eta abar, 1933.ko otsailetik maiatza bitartean saioak egiten ihardu ondoren, Lizarrako zaindariaren egunean aurkeztu zituzten dantza eta talde berri hauek. Segidan, Aita Olazarane, «LA VOZ DE NAVARRA» egunkarian idatzitako artikulua batetan dantza honen birlorpena eskertu eta gero Leitzako ingurutxoarekin parekatzen zuen.

29. *Ibidem*.

30. Petra Azpiroz'ek emandako lekukotasunaren arabera. Iruñean, 1988ean.

31. *Ibidem*.

«Larrain Dantza koreografia aldetik, bertze batzuekin alderatuz, Ingurutxo bat da, Larraun, Ultzama eta Basaburukoen antzerakoa. Larrain dantzaren bi lehenbiziko zatiak erritmo eta doinuaren aldetik Ingurutxoan bezal dantzatzen dirá, nahiz eta dultzainaren melodía txistuarena baino altuagoa izan. Euskaldun jatorriari begiratuz gero Lizarrako dantzak galdu izan duena, kanpoko osagaietaz, hots, fandango, jota zaharra eta boleroz orekatzen da. Nafar izpiritu musikalak aldatu ditu kanpoko eragin hauek, folklore ikuspuntuatik biziki eder eta interesgarria den Lizarrako dantza honi oso kolore aldakorak emanez»<sup>32</sup>.

Hala ere, esan beharra dago, eskualde honetako folkloreak bizi zuen hazkundera ez zela jende guztiaren gogokoa. Karlistek, esate baterako, arlo honetan ezer ez egiteaz gain, Nazionalismoarekin batera antolatutako zenbait inizatibetan euskal kulturaren nolabaiteko kutsua antzematen ba zuten berehala ospa egiten zuten. Hórrela gertatu zen Lizarran bertan 1933.ko udan Gipuzkoako uholdeetan suertatu ziren kaltetuen alde egindako jaialdian. Egun hartan festaren presidentzian «margaritak» erakundera ordezkatzeko ari ziren hiru emakume karlistek alde egin zuten dantza taldeek «separatisten» bandera atera zutelako.

Lizarrako abertzaleek euskal dantzen zabaltzeari gogor eutsi zioten eta bere hirian ez ezik bertze herrietan ere, Aiegi, Bargotan... talde berriak restatu zituzten noizean behin erakustaldi amankomunak antolatuz.

Dena den euskal eskolak eta bertze hainbertze gauzek jasan behar zuten jazar-kundera, folkloreak ere pairatu zuen 1936.ko uda ailegatu zenean. Askatasunezko aro bati bukaera emanez zenbait hamarkada gogor eta latzek igaro behar zuten berriro herri sentimendu eta inizatiba anitz libreta adierazi zitezten.

32. Aita Olazarán. LA VOZ DE NAVARRA, 1933.ko ekainaren 3.an.